



## AKTEA/13

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**  
(2024-04-23)

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2024-04-23 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:02
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:10
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA URIASTE ANASAGASTI VICTOR ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	
<b>Idazkaria:</b>	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024  
17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703

Datea: 23/04/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000F605700J3W3E9H9H3B3



## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-04-16 TGB (12)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Lamerako 2. zenbakidun kioskoaren emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea eta deialdia zabaltzea.
- 4.- Besalde alkarteari 2024. urteko dirulaguntza izenduna bideratzeko hitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Lurre Hurre alkarteagaz 2024 urteko dirulaguntza izenduna bideratzeko lankidetz hitzarmena sinatzea onartzea.
- 6.- 30.691.308-Q NAN zenbakidun langilearen umea zaintzeko lanaldi murrizketa lizentzia onartzea.
- 7.- 175/2022 eta 841/2023 epaietaz berri ematea.
- 8.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 9.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-04-16 TGB (12)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko apirilaren 16ko 12/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

Endika Etxebarria batzar gelara sartu da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024 17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703  
Data: 23/04/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



### 3.- LAMERAKO 2. ZENBAKIDUN KIOSKOAREN EMAKIDA ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.

Momentu honetan Miren Gabantxo batzar gelara sartu da.

#### Xedea

Lamerako 2. zenbakidun kioskoaren emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

#### Aurrekariak

Lehenengoa: Lamerako 2. zenbakidun kioskoaren emakidaren deialdia hutsik geratu zen. Hori horrela, emakida esleitzeko deialdi berria egin behar da eta, horretarako, deialdiaren oinarriak prestatu dira Idazkaritza Sailean.

Bigarrena: Udal arkitektoak espediente honen xede den jabari publikoko ondasunaren balorazioa eta hirigintza kalifikazioari buruzko txostena igorri zuen, 2023ko irailaren 6ko dataz.

Hirugarrena: 2024ko otsailaren 1ean, udal kontu hartzaileak, 2024ko Udal Aurrekontu Orokorreko baliabide arrunten %10a zehazteko ziurtagiria eman zuen.

Laugarrena: Errenta Saileko teknikariak, 2024ko apirilaren 15ean txostena eman zuen, emakida dela eta, ordaindu beharreko kanonari buruz.

Bosgarrena: 2024ko apirilaren 16an, Idazkaritzako AOTak txosten juridikoa eman du.

#### Argudioak

Lehenengoa: Emakidaren xede den kioskoa jabari publikoko ondasunak dira, zerbitzu publikoari atxikiak, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 4. artikularekin bat etorritik.

Bigarrena: Proposatutako okupazio-izaera eta epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman beharko da, 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikuluetan eta 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena: 33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehiaketa bidez emango dira. Eta kasu honetan



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024 17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703

Fecha: 23/04/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



lehiaketa bidez esleitzeko irizpide bakarra zehaztu da, prezioa hain zuzen, emakidaren ezaugarriak kontutan izanda, emakidaren onurarako baliagarriak izan daitezkeen bestelako irizpiderik ikusten ez delako eskainitako prezioaz aparte.

Laugarrena: Kontuan izanda negozio juridiko hori dagokion herri-jabariko emakida egilestearen mende dagoela eta bere legeria propioa izango duela, hori izango da administrazio publikoen ondasunak arautzen dituen, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratuko da, nahiz eta, lege-hutsuneen kasuan, kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion.

Bosgarrena: Espediente honen xede diren emakidak ez ditu udalak finantzatu, aitzitik, kontzesiodunek ordaindu beharreko urteko kanonaren mende daude.

Seigarrena: Emakiden oinarriak eta esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarritzko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa.

Baina 2024ko otsailaren 28ko 926 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Lamerako 2. zenbakidun kioskoaren emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Jabari publikoaren gaineko emakida esleitzeko deia egitea. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Eskaintzak aurkezteko epea 20 lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta ATBri helaraztea, jakinaren gainean egon daitezkeen dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

## 4.- BESALDE ALKARTEARI 2024. URTEKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA BIDERATZEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024 17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703  
Data: 23/04/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



## Xedea

Sahararen aldeko karabana solidarioa aurrera eramateko Asociación de Amigos del pueblo saharai BESALDE alkarteari 2024ko dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena sinatzea.

## Aurrekariak

Lehenengoa: 2024. urterako Aurrekontuan, hirugarren munduko gizarte laguntzak partidaren barruan, BESALDE alkartearen dirulaguntza nominatiboa jasoten da, eta alkarteari aitaturako dirulaguntza nominatiboa bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2024ko martxoaren 19an eta 20an, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon dauz hurrenez hurren.

Hirugarrena: 2024ko apirilaren 5ean, udal kontu hartzaileak kontrako fiskalizazio txostena emon eban.

Laugarrena: BESALDE alkarteak, kontu hartzailearen txostenaren ondorioz eskatutako Ogasun eta Gizarte Segurantzazagaz zorrak ez izatearen agiriak aurkeztu dauz.

## Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua, eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua f) eta s) atalen arabera, alkateari jagoko, baina 2024ko otsailaren 28ko 926 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2024. urterako Aurrekontuan, hirugarren munduko gizarte laguntzak partidaren barruan, BESALDE alkartearen izenean dagoen dirulaguntza nominatiboa



### Sinadurea eta data



bideratzeko, Asociación de Amigos del pueblo saharai BESALDE alkarteagaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

## 5.- LURRE HURRE ALKARTEAGAZ 2024 URTEKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA BIDERATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

### Xedea

Pertsona migranteekaz martxan daukeen proiektuagaz jarraitzeko Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko – lurre hurre alkarteagaz lankidetzat hitzarmena sinatzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko – lurre hurre alkarteagaz alkarlanean pertsona migranteekaz proiektuagaz jarraitzeko lankidetzat hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2024ko martxoaren 20an, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon ebazan.

Hirugarrena: 2024ko apirilaren 5ean, udal kontu hartzaileak kontrako fiskalizazio txostena emon eban.

Laugarrena: Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko – lurre hurre alkarteak, kontu hartzailearen txostenaren ondorioz eskatutako Ogasun eta Gizarte Segurantzazagaz zorrak ez izatearen agiriak aurkeztu dauz.

### Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauen 7/1985 Oinarri Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen dauen 33/2003 Legearen 137.4.c)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024 17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703  
Data: 23/04/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unida: Erregistro nagusia



artikulua, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak, eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikulua hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua b), f) eta s) atalen, eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen II. Xedapen gehigarriaren arabera, alkateari jagoko, baina 2024ko otsailaren 28ko 926 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Almika Auzoan Bermeoko Udalak erabiltzen ez dauzen lur batzuetan eta basetxean pertsona migranteekaz formakuntza proiektua garatzen jarraitzeko, eta 2024. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko – lurre hurre alkarteagaz lankidetzat hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

## 6.- 30.691.308-Q NAN ZENBAKIDUN LANGILEAREN UMEA ZAINTEKO LANALDI MURRIZKETA LIZENTZIA ONARTZEA.

### Xedea

30.691.308-Q NAN zenbakidun langilearen umea zaintzeko. 2024. urterako lan murrizketa eskaria onartzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2024/1633 sarrera zenbakiagaz langileria bideratutako eskarian 2024 urterako lanaldi murrizketa eskatzen du, hain zuzen ere:

*Lanaldi murrizketa haur baten zaintzagatik. 9 urte dakoz eta atsaldeko orduetatik batzuk kendu nahi ditut, 18tatik 21'30tararte eta bigarren gaua 22'00-7'30tararte.*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024 17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703

Data: 23/04/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



*Martxoaren batetik ekainaren 30arte.*

Bigarrena: Arreta soziosanitarioko arduradunari txostena eskatu zaio.

## Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 56. artikulua honako hau ezartzen du:

### **“56. artikulua.- Adin txikikoak edo ezindu fisikoak edo psikikoak zaintzeko lizentzia**

1. Hamabi urte baino gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukan pertsonalak bere lanaldia heren batean edo erdian murrizteko aukera izango du, lanaldiaren hasieran edo amaieran, langile publikoak nahi duen moduan; langilearen ordainsariak zati proportzionalean murriztuko dira, antzinakotasunari dagokiona ere bai. Zortzi urte edo gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukanak bere lanaldia gutxienez 1/8 eta gehienez erdian murrizteko aukera izango du, ordainsaria zati proportzionalean murriztuz.

2. *Legezko zaintza ez da bateragarria izango murrizten den ordutegiaren barruan egindako soldatapeko beste edozein jarduerarekin.*


3. *Behar bezala arrazoituta salbuespenezko egoera jakin batzuk kenduta, lizentzi hau hamabi hilabeteko epeetan emango da; lizentzia emateko arrazoiak asko aldatuz gero, langile publikoak lanaldi murrizketa aldatu ahal izango du eta lanera itzuli baino 15 egun lehenago, Erakundeari horren berri eman beharko dio.”*

Bigarrena: Langileari dagokio ordutegia zehaztea, beti ere zerbitzuaren antolaketa-beharrizanak kontuan hartuz, zerbitzuak kalterik izan ez dezan.

Hirugarrena: Enplegatu publikoaren oinarritzko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako errege-dekretuaren 48. artikulua honako hau ezartzen du:

*“h) por razones de guarda legal, cuando el funcionario tenga el cuidado directo de algun menor de doce años, de persona mayor que requiera especial dedicación o de una persona con discapacidad que no desarrolle actividad retribuida, tendrá derecho a la reducción de su jornada de trabajo, con la disminución de sus retribuciones que corresponda...”*

Laugarrena: Halaber, emakume eta gizonezkoen berdintasunerako 3/2007 Legearen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024 17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703  
Data: 23/04/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia





hamazortzigarren xedapen gehigarrian honako hau ezartzen da:

*“g) El funcionario que, por razones de guarda legal, tenga a su cuidado directo de algun menor de doce años, persona mayor que requiera especial dedicación o a una persona con discapacidad que no desempeñe actividad retribuida, tendrá derecho a la disminución de su jornada de trabajo...”*

**Bosgarrena:** Lan-merkatuaren erreformarako premiatasunezko neurriei buruzko 3/2012 Legearen Lehenengo xedapen gehigarriko 2. atalean xedatzen du:

*“5. Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algun menor de ocho años o una persona con discapacidad que física, psíquica o sensorial, que no desempeñe una actividad retribuida, tendrá derecho a una reducción de la **jornada de trabajo diaria**, con la disminución proporcional del salario, entre, al menos un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella...”*

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:


**BAKARRA:** Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmeneko 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, 30.691.308-Q NAN zenbakidun langileak bere eguneroko lanaldi murrizketaren aldaketari egindako eskaera onartzea beti ere zerbitzua kaltetzen ez bada. Erabaki hau hartzen den egunetik aurrera izango da. Murrizketa hori lanaldiaren amaieran aplikatuko da, beti ere zerbitzuaren ordutegi-mugen barne.

## 7.- 175/2022 ETA 841/2023 EPAIETAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 175/2022 eta 841/2023 epaietaz berri eman zaio

## 8.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkatetza dekretuen berri eman da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024 17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703

Fecha: 23/04/2024  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



**9.- ESKARI ETA ITAUNAK.**

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orrri oinean sinatzaileak eta datak*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E8000F605700J3W3E9H9H3B3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
23/04/2024  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2024  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2024  
17:08:48

DOCUMENTO: 20241007703

Datea: 23/04/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia